

1.MAILA 3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Oporretarako plan zoragarria

Gaur egun bidaiatzeko aukera asko daude eta ia-ia mundu osoa bisita dezakegu. 4 bidaia-mota dituzu segidan. Adostu bidaia hauetako bakoitza norentzat den egokia, eta zergatik.



Bakarrik eta dirurik gabe



Talde handian



Familian



Bikotekidearekin eta luxuzko zerbitzuekin

GALDERA OSAGARRIAK

- Bidaiatzea gustatzen zaizu?
- Nola bidaiatzen duzu normalean? Bakarrik, taldean, bikotekidearekin...
- Zure ustez, zein da plan on bat bidaiatzeko?
- Denbora asko pasatzen duzu bidaia antolatzen?
- Nolako izan zen zure lehen bidaia gogoangarria edo berezia?
- Kontatu zure bidaietako anekdotaren bat.

HIZTEGI OSAGARRIA

ADOS NAGO ZUREKIN. Estoy de acuerdo contigo.
AGENTZIA BIDEZ BIDAIATZEN DUZUNEAN.- Cuando viajas con agencia.
AUTOAN/AUTOBUSEAN/HEGAZKINEAN BIDAIATZEA.- Viajar en coche, autobús, avión.
BAKARRIK/BIKOTEKIDEAREKIN BIDAIATZEA.- Viajar solo/a/Viajar en pareja.
ELKARREKIN BIDAIATU GENUEN.- Fuimos juntos/as de viaje.
FAMILIAN BIDAIATZEA.- Viajar en familia.
GAZTEA NINTZENEAN. Cuando era joven.
LUXUZKO ZERBITZUAK.- Servicios de lujo.
NAHIAGO IZAN/HOBE DA./GEHIAGO GUSTATU- Preferir/Es mejor/Gustar más (konparaketak).
OPORRETAN.- En vacaciones.
OPORRETARA JOAN.- Irse de vacaciones.
OPORRETARAKO PLANA.- Plan de vacaciones/plan para las vacaciones.
OPORRETARAKO.- Para las vacaciones.
TALDE HANDIAN BIDAIATZEA.- Viajar en grupo.
URRUTI JOATEN BAZARA. Si vas lejos.

IDEIA OSAGARRIAK

- *Planik onena bakarrik bidaiatzea da.*
- *Familian bidaiak egitea oso zaila da, gauza asko behar dira.*
- *Talde handian bidaiatzea ez da erraza, baina ez zara aspertzen.*
- *Oporretan luxuzko zerbitzuak erabiltzeko aberatsa izan behar duzu .*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

1358502 [Bidaiatzeko modu berrien bila](#)

1575221 [Nola bidaiatzen genuen internet sortu aurretik?](#)

1076540 [Hiritik herrira oporrak pasatzera](#)

930597 [Beti kexu](#)